

Jump!

E

uskaldunak oro, Angel, berriak gara, berriak izatea erabakitzen dugun unetik. (Euskaldun) zahartzeak ezer onik ez dakarrela

entzun dut ardura Zuberoako eta barnealdeko haran hertsietarik nembilen garaietan. Egia erran, ez dut gaur idazteko gogo handirik eta txantxa poetiko soinuarekiko Ttakun [h] errenka bat ekarriko dut orrialdeotara, Inaziok laster abiatuko eta bukatuko den KORRIKA 15ean bezala, Josiri lekukoaren makila pasatzen diola. Mozkor nahi nuke nik ere, mozkor udaberriz, mozkor musikaz, mozkor bake lehiatz, mozkor gure hizkuntzako ele eztiz, ez burua apalik eta murrak arrasatuz etxeratzeko, baina harro bezain jabal. Euskaldun berria horrela irudikatzen baitut, alabaina.

Oporretan nago azkenean eta bakantzetan naizen lehen egun guztietan, Madonnaren *Confessions On A Dance Floor* behatzen dut, buklean. Gustatzen zait Madonnaren ibilbide artistikoa, Mirwaisekin kolaboratzen duenez geroztik gauak alegeratzen dizkigula, nota bakoitza izar iheslari bihurtzaraziz. Datozen asteetan Mexiko DFen aurkituko naiz, arto irinez kozinatu taloak eta matahameak milikatzen, tekila hurruputzen eta Tijuana In Blue talde nafarrak belarrian ohiko txertatu zizkigun melodia mejikanak gozatzen. Agian Madonnaren ahaide bat edo beste hautemanean dut aireportuetan eta orduan, ondorioz, munduan arrotz ezagun sentituko naiz. Maite dut arrotz izatea, ene herriaren muinean berean.

Octavio Paz-en *Bakartasunaren Labirintoaren* ildoetarik ibiliko naiz, euskaldunak eta lurraren gaineko gainerako *primitiae* populua zerk egiten gaituen hain zahar neurekiko aztertzen. Gure erreakzioen biolentziak gaitu ote amiltzen ala elkarren artean jada harremanik ez edukitzeak, hots xinaurri berdeek amets dagation herrialdeetako aborigenoei, indar itsuaz mutuaraziriko



Itxaso Borda

Errro

Basterretxea

maia eta azteken arra-hurrek eta dibortziazear den siriar poeta emakume adiskideak eta guk, derrigor biziarazteko den lotura isil eta sekretu bat badugula ez ohartzeak? Nork josi diezaguke urratu diguten oihala, ez baldin bada arrakasta planetarioa duen Madonna gureak? *Jump* dio Louise Veronika Ciccione andreak, *jump* errepikatzen du Britney Spears gaizoaren ezpainetan, benetako lesbianak bailiran, musu glamourosa pausatuz!

Gurea, han edo hemen, Forbidden Love bat baita.

Primaderako goiz hau zilar-gris altxatzen da. Eder da, neguaren bihotzetik bizirik jalgitzen garelako sentsazioa. Gristasun iluminatuak Berlineko Oberbaumbruckera naroa eta larrazkenean laino bustitan sutzen den Irati kaskora. Urruntasunik ez da antzematen orduan, urratsa urratsaren kidegoa baino. Urruti eta gerora pentsatzea ilusio optiko bat dela, oraina bete-beteen harrapatzea amesten dut. Baina gu, populu zaharrak, geroan irudikatzen gara, iragana eternitate haztuz eta oraina sakrifikatuz. Zer huts egin dugun galdezka gabilta, noiz desbideratu garen, zergatik modernitatearen saretarik baztertu gaituzten, nola onartu dugun hain erraz behe-mailako jendailetan sailkatuak izatea, hizkuntzak eta larruak beltzegiak genituela haien aitzaki zitala barneratuz?

Keep on pushing me xuxurlatzen digu Madonnak. Mendeetako depresio kulturalaren atzaparretarik askatu beharko genuke, ez bakarrik etsai eta maketoenetarrik. Ez da etnopsikologo egokirik horretarako. Eta gure baitan daukagun piztiak eta andere zuriak baketzeko modua Madonnaren abesti umil eta efikaz bat entzutea dela uste dut, dantza, dantza dezagun Aizkorriraino, gaua argi-izpi lehertzerraino, artizarra zeruan agertzeraino eta *Let it will be*. ■



Nork josi diezaguke urratu diguten oihala, ez baldin bada arrakasta planetarioa duen Madonna gureak? *Jump* dio Louise Veronika Ciccione andreak, *jump* errepikatzen du Britney Spears gaizoaren ezpainetan, benetako lesbianak bailiran, musu glamourosa pausatuz!

